

Faharren egunerokoa

Ni Teresa naiz, 35 urteko Andoaindarra. Kazetaritza ikasi nuen eta orain “Berria” aldizkarian egiten dut lan. Oso gustura nago nire lanarekin, baina azken boladan pixka bat estresatua nabil. Ez dut uste, nire estresaren erru guztia nire lanak duenik, etxean ditudan bi terremoto horiek ere badute zer ikusia. Ander eta Nora dute izena nire seme-alabek. Mutikoak hiru urte ditu eta Norak, berriz, hamahiru hilabete. Oso bihurriak dira, baina momentu onak ere ematen dizkigute. Barkatuko didazue, konturatu gabe gaiaz desbideratu bainaiz. Gaur ez naiz orri honetan hitz hauek idazten hasi nire seme-alaben abenturak zuei kontatzeko. Oraingoan, nire bizitzarako garrantzi handia izan zuen liburu bati buruz hitz egiteko idazten dut, “Faharren egunerokoa” izeneko liburuxka hain zuzen. Aspaldi irakurri nuen liburu hau lehen aldiz, baina oraindik ere gau-mahai gainean dut noizean behin bere orrietan kontatzen den historian murgiltzeko. Horregatik, orain zuei uzten dixuet liburutxo hau, bertako orrialdeetan gal zaitezten.

2002ko martxoaren 20^a, asteazkena.

“ Hiru edo lau egun daramatzat orri hauetan ezer idatzi gabe. Badakit egunero idatziko nuela zin egin nuela, baina egun hauetan ezinezkoa izan da hau betetzea. Hasieratik kontatuko dizuet.

Larunbatean, nire lagunekin jolasten ari nintzela amak dei egin zidan:

- Fahar!Fahar!Zatoz ona azkar.

Amaren aurpegia ikusterakoan, segituan konturatu nintzen zerbait larria gertatzen ari zela; zuri-zuri zegoen eta begiak normalean baino beltzagoak ziren.

Momentuan lagunak utzi eta amarengana hurbildu nintzen korrika:

- Zer gertatzen da, ama?- galdetu nion.

- Zatoz etxera eta han kontatuko dizut guztia.- erantzun zidan amak.

Arineketan joan ginen etxera ama eta biok, eta bertara iristean nire anai-arrebak mahai inguruan eserita ikusi nituen. Mahaiaren albo batean aulki bat zegoen hutsik eta bertan eseri nintzen. Ama mahaiaren beste izkinean jarri zen zutik eta denei batera begiratzuz hizketan hasi zitzaigun:

- Dakizuenez, azkeneko asteotan gerra hasiko zela ohartarazten egon dira albistegietan eta egunen batean hemendik alde egin beharko genuela esan genizuen aita eta biok. Beno, ba egun hori iritsi da. Bihar hasiko da guda. Horregatik, lehenbailen alde egin behar dugu hemendik eta leku seguru batera joan.

Momentu horretan, mundua erori zitzaidan gainera Ez nituen amak esandako gainontzeko hitzak entzun, ezta nire arreba txikiaren negar zotinak ere. Han geratu nintzen geldi zer egin ez nekiela. Ez dakit zenbat denbora igaro zen amaren ahotsak nire pentsamenduetatik atera ninduten arte:

- Fihar! Ez al duzu entzun ala? Joan zaitez zure gauzak aitak jeitsitako poltsetan sartzera, baina beharrezko gauzak bakarrik hartu. Bost minutu barru hemen ikusi nahi zaitut.

Nire gelara joan eta beharrezko gauza guztiak aitak ohe gainean utzitako zorroan sartu nituen. Ez nuen denbora asko behar izan: niki pare bat, jertsea, galtza batzuk, arkatz bat eta eguneroko hau besterik ez bainituen hartu.

Sukaldera joan eta han zegoen familia guztia etxetik alde egiteko prest. Amak nire arreba txikia, Naruk, zeraman besoetan eta poltsa bat bizkarrean. Anaiek berriz, nire antzera, zorroak zeramatzen eskuetan eta aitak poltsa bat eta janariz betetako zakua. Naruk negarrez zihoan eta amaren begiak ere gorritzen hasiak ziren, aurpegira begiratu eta bere masailetik behera malko bat eroritzen ari zitzaiola ikusi nuen.

Etxetik atera eta hiri irteerarantz abiatu ginen. Bertan, hiritar gehiago zeuden gure bide bera jarraitzeko asmotan. Bidean ixiltasun handia zegoen, eta ni nire ideietan murgildurik nindoan.

Nire bizitza guztia pikutara joan zen ordu batzuetan. Nire herria zen Basora, utzi behar izan nuen eta ez nekien nora nindoan ere. Nire lagunak eta bizilagunak, ez nekien berriro ikusiko nituen eta idazle izateko nire ametsa, berriz, ez zen inoiz beteko. Ez nuen inoiz nire izena liburuen azaletan ikusiko.

Orduak pasa nituen ixil-ixilik nire buruari bueltak ematen. Iluntzen ari zen eta bide ertzean zegoen belardi batean geratu ginen gaua pasatzeko. Nire familiaz gain, bi edo hiru sendi gehiago ere geratu ziren. Denak elkarrekin zerbait afaldu eta lo egitera joan ginen. Segituan hartu

nuen lo, hainbeste ordu oinez igaro ondoren oso nekatuta bainengoen.

Hurrengo egunak berdintsuak izan ziren. Egun guztia oinez pasatzen genuen eta ondorioz, nire hankak babaz betetzen hasiak ziren. Eskerrak amak hanketarako genuen ukendua ematen zidala. Deskantsatzeko geratzen ginen momentuetan, berriz, zerbait jaten genuen. Ni geroz eta nekatuago nengoen, baina ez nuen ezer esaten, banekien mugara iritsi behar genuela eta laister iritsiko ote ginen galdetzen nion neure buruari.

Bidetik, bonben hotsa entzuten nuen noizean behin. Eta horrek galdera gehiago ekartzen zizkidan burura. “

Nola ote dago nire etxea?”, “ Eta nola egongo zen ihes egin ez zuen jendea?”

Gaur aitarekin hizketan nindoala mugara bihar iritsiko garela esan dit. Eskerrak; gogo handia baitut mundu beltz hau atzean utzi eta mundu hobe batera iristeko. Baina askotan negar egiten dut gauean, ez baitakit zer gertatuko den nirekin eta ingurukoekin.

2002ko martxoaren 25a, astelehena.

Nire aitak arrazoi zuen. Gaur arratsaldean iritsi gara mugara. Eguerdian iritsi behar genuen, baina ekaitza hasi duenez, pixka batean gelditu behar izan dugu bideko aterpe zahar batean.

Muga pasatzen nahiko denbora pasa dugu, jende asko zegoen ondoko herrialdera, Iranera, pasa nahian eta.

Gainera, batzuk Iraketik ateratzeko beharrezko paperak ez zituztenez, izugarrizko ilarak sortu dira.

Baina ordu batzuk igaro ondoren, guk gure paperak ondo genituenez, muga pasa dugu. Bat-batean, irribarre lotsati batek gure aurpegi ilunak argitu ditu. Lortu genuen, Iranen geunden. Orduan lo egiteko leku baten bila hasi gara. Ondoko landa batean errefuxiatuentzat jarri dituzten kanpin denda batzuetan geratu gara gaua pasatzen. Amak esan dit zopa antzeko bat eman behar zigutela afaltzeko. Den-dena jan dugu, denok gose handia baikenuen. Gero, lurrean zegoen koltxoi antzeko batean etzan eta idazten hasi naiz:

“Eskerrak iritsi garen”- pentsatu dut. “Hemen, gutxienez, salbu gaude, baina hala ere ez dut ulertzen zergatik alde egin behar izan genuen gure etxetik. Zergatik hasi da gerra? Niri inork ez dit galdetu guda ala bakea nahi dudana eta gerran sartzearen lehen kaltetuak gu gara. Zer zen gerra? Pertsona aberats batzuk aukeratutako denbora-pasa bat? Ez dakit, nik ez dut mundu hau ulertzen, baina, hala ere, ez dut uste batere justua denik egiten dutena.”

2002ko, martxoaren 26a, asteartea

Gaur, Iranen pasa dudan lehen eguna izan da. Goizean, goiz esnatu eta dendatik atera ondoren baso txiki bat esne eman digute umeoi hemen dauden boluntarioek. Hauek, oso pertsona onak direla uste dut, bere familia, etxebitzita, lagunak, etab. utzi eta gugana etortzen dira guri ahal duten eran laguntzera.

Esnea edateko borobilean jartzeko eskatu digute. Orduan, nire ondoan nire adin beretsuko mutiko bat eseri da. Oso mutil ona ematen zuen eta segituan hasi gara hizketan. Gosaldu eta gero biok kanpalekuaren ondoan dagoen parke batera joan gara.

Mutikoaren izena Asmir da eta hamar urte ditu, nik bezala. Iraketik etorri da bere familiarekin eta bi anai-arreba ditu. Eskolara joaten dela, irakurtzea atsegin duela, etab. ere kontatu dit Asmirrek.

Orduan, nik idazlea izan nahi dudala esan diot eta, jadanik oso esperantza gutxi dudala hau lortzeko. Baina berak, esperantza ez galtzeko eta nire ametsari uko ez egiteko esan dit. Bere hitzak entzundakoan, begiak argitu egin zaizkit; arrazoi du, ezin dut besterik gabe nire betiko ametsa baztertu. Egunerokoa idazten ari naizela ere esan diot eta ideia zoragarria iruditzen zaiola jakinarazi dit, horrela, handitzen naizenean txikitan nolakoa nintzen irakurri ahal izango dudalako.

Berriketan genbilela eguerdia iritsi da eta errefuxiatuen kanpamentura bueltatu behar izan dugu, amari anaiekin jolastuko nuela agindu baitiot.

Kanpamentuko ume batek zuen baloi zahar batekin futbolean ibili gara ume talde bat eta lehen aldiz, etxean bezala sentitu naiz.

Iluntzean, ogi antzeko pixka bat jan eta bakoitza bere kanpin dendara itzuli gara. Ohean etzan eta idazten hasi aurretik Asmirrek esandakoaz pentsatzen aritu naiz. Arrazoi zuen, ezin diot nire idazle izateko ametsari uko egin. Dudarik gabe, egunerokoko orriak amaitu arte idazten jarraituko dut.

2002ko martxoaren 27a, asteazkena

Gaur goizean esnatu eta zerbait jan ondoren izkina batean eseri eta Asmirrekin hizketan aritu naiz. Baina bat-batean, gizon-emakume batzuk oihuka zetoze ikusi dugu; kanpamentuan zeuden irakiar batzuk ziren.

Batek eskuak odolez beteak zeuzkan eta beste batek, berriz, izugarritzko zauria zeukan buruan. Bertan zeuden helduengana gerturatu eta batek AEBetako soldaduak Iraneko mugatik ateratzen zen edozein tirokatzen ari zirela esan die. Gero beste batek hizketan jarraitu du eta iturrirantz zihoazen gizon batzuk hil zirela esan du.

Orduan, niri, aita etorri zait burura. Aita beraiekin joan zen kanpoko iturrira ura hartzera, kanpamentu inguruetan ez baitzegoen beste iturrik, eta ez zen inondik ageri.

Bat-batean, korrika hasi eta iturrirantz abiatu naiz. Azkar nindoan, nire hankek ahal zuten bezain azkar eta begietatik malkoak ateratzen zitzaizkidala nabaritzen nuen. Baina orduan, lasaitasuna bueltatu didan zerbait ikusi dut. Han zegoen nire aita, izkina batean eserita nire ama eta anai-arrebak besarkatzen. Beraiegana hurbildu eta besarkatu egin ditut nik ere. Aita iturrirantz atera baino lehen egin dute tiro AEBetako soldaduek. Jainkoari esker aita salbu zegoen.

Orduan, aita han zeuden zauritu batzuei laguntzen gelditu da eta gu, bitartean, kanpamentura itzuli gara.

Arratsaldean hildakoak ondoko zelai batean lurperatu dituzte eta zaurituei, berriz, boluntarioek zauriak sendatu dizkiete.

Gero, kanpin dendara bueltatu eta pentsatzen aritu naiz. Jainkoari gauza bakarra eskatuko diot hemendik aurrera, maite ditudan pertsonak ez hiltzea. Gerra amaitu ondoren, denok elkarrekin etxera bueltatzea nahi dut."

Hauek izan ziren Faharrek idatzi zituen azken hitzak. Hurrengo goizean, mugatik beste aldera pasa behar izan zuen kanpoan zegoen iturritik ura ekartzera; eta hau egiten zuen bitartean AEBetako soldadu batek bota zuen bala batek bere bihotza gurutzatu eta bere bizitzari amaiera eman zion betirako.

Gaur liburu hau esku artean duzu bertan zeuden boluntarioek berak lo egiten zuen koltxoiaren azpian eguneroko hau aurkitu, irakurri eta argitaletxe batera eramanez ondoren argitaratzea erabaki baitzen.

